

Aupa emakume kirolariak!!!

Maite Blanco

Ez dut inoiz kirolik egin. Nola da posible? Ez da tentagarria iruditzen zaidan ezer, inoiz ez zait iruditu. Txikitan eskolan kirola egiten genuen, derrigorrezko irakasgaia zen, eta ez nintzan batere abila sentitzen. Mutilak beti zeuden euren indar fisikoa erakusteko nor gehiagokan, beti futboleant jolastu nahian. Neskak, aldiz, gaur zer tokatuko den galdetzen genion geure buruari, lotsagarri utziko gintuen ezer egitea ez tokatzea erregutuz.

Tarteka futboleant jolastea tokatzen zitzaigun, neskak alde batetik eta mutilak bestetik jolastu bagenuen ondo pasatzeko aukera genuen. Neskak, baten bat salbu, ez ginen futboleant oso adituak, ez baikenituen, mutilak egiten zuten lez, jolastordu guztiak futboleant pasatzen. Gure arteant jolastu genueneant, baloia hanka-arteant mantentzea zen erronkarik handiena eta gure buruez barre egiteko aukera bat zen, hain trakets ikusten baikenituen gure buruak!

Mutilak, aldiz, oso serio hartzen zuten jokoa. Etorkizuna bertan jokatuko balute bezala eta inor baldar bazebilen berarekin asko haserretzen ziren. Imaginatu nire beldurra mutilekin jolastea tokatzen zitzaigunean. Ekipoko kapitainek, gelako mutil jokalarit onenaren titulua zeukatenek, euren taldeetan nor jokatuko zuen aukeratzen zuten. Denok ormaren kontra jartzen ginen, fusilamentuko horma bateant egongo baginan lez, eta kapitainek txandaka euren taldeant nor parte hartuko zuen aukeratzen zuten. Neskak eta futbola gustatzen ez zitzaien mutilak izaten ginen azken aukeratuak. Bagenekien euren taldeetan hartzen gintuztela derrigorritu zeudelako, denok parte hartu behar genuelako, baina gu euren irabazteko nahien oztopo bat sentitzen ginen.

Partida hasten zeneant bi aukera zeuden; zerbait egiten saiatu, hau da, baloia hartu eta ahalik eta joko hobereant egiten saiatu edo zelaian gora eta bera korrika egin inor ez molestatzen saiatuz. Bigarren aukera errazena zen, ikusezint bihurtzen nintzan, jolaseant nenbilelakoant egiten nuen eta ez nuen inoiz baloia hartzeko saiakerarik egiten.

Nahikoa nuen indarrez botatzen zuten baloiant mintu ez nintzan ekidituz.

Inoiz jolasteko gogoia izan banuen, saiatzen nintzen baloia nireganatzen. Ez zen erreza izaten, mutilek ez baitzioten baloia ondo jolastu ez zekien inor pasatzen. Baloia izatea lortzen nuen presio handia sentitzen nuen, ardua handia, nire esku baitzegoen nire taldearen etorkizuna eta ezer txarto egin ezkerot haserreak jasan beharko nituen. Holakoetan, baloia ukitu bezain pronto baten bati pasatzen nion, nik baloiarekin ezer egiteko aukerarik ez nuela onartuz.

Futboleant jolastea ez zen soinketa egitearen txarrena. Bazeuden kikiltzen ninduten beste hainbat gauza, besteak beste, nire gorputza barrengarri agertzea eta mutilen txantxen jo muga izatea. Egoera hau ez zuen errazten soinketa egiteko erabili behar genuen arropak. Praka motzak janztara derrigorritu geunden eta hanketako ilea hasi zitzaidaneant lotsagarri sentitzen nintzen. Oraindik ez nuen behin ere ez hanketako ilea kendu eta ilea ezkutatzeant galtzerdi luzeak eramaten nituen. Egiten genuen ariketaren arabera galtzak jaisten zitzaizkidan eta hor nenbilen nit inor konturatu ez zedin ahalik eta naturaltasun handienaz galtzak berriz ere igotzen, bitarteant egin beharreko ariketari erantzun behar niola. Zer esanik ez hilerokoa jaitzi zitzaidaneant pasatu behar izan nituen komediak konpresako odola praktetara pasatu ez zedin eta paketea nuela inor konturatu ez zedin.

Hamaika istorio kontatu ahalko nituzke soinketa klaseant bitakoz, ez baitzen erreza izan nireztat egoera horretant kirolaz disfrutatzea. Horrelako bizipenek lortu zuten nit emakume lez bitzint tokatzen zitzaidan tokia barneratzea. Horrela ikasi nuen espazioa gizonei lagatzen,

ikusezin bihurtzen, nire gorputza lotsagarri bizitzen, eta niganako erasoak emakume izateagatik tokatzen zitzaidan kuota zela onartzen.

Norberak duen bizipen pertsonalei gehitzen badiogu jendartean emakumeek egiten duten kirolari ez zaiola duen balorea aitortzen, nola espero dugu emakumeak kirola egitea? Nola, ez baldin baditugu erreferenterik? Nola, ez badugu kirol munduan etorkizunik ikusten? Nola, baliabide gutxiago baditugu? Nola, ez badaude lehiarako nahiko emakume talderik? Nola, emakumeen kirola komunikabideetan ez bada azaltzen? Nola, gizonak kirolean kobratzen dutenaren zati txiki bat bakarrik kobratzea bada lortu genezaken gehiena? Nola, ez baikaituzte ezta gure gurasoek kirola egitera animatzen?

Egoera honetan, uste dut ez dagoela azaldu beharrik emakumeen kirola bultzatzeko dagoen beharra. Askoz ere zailagoa baita emakume batentzat kirol munduan sartu eta mantentzea gizon batentzat baino. Guzti honen jakitun, Errenteriako Berdintasunerako Kontseiluak urtero hiru kirol talde sponsorizatzea erabaki du, kirolarekiko emakumeen motibazioa indartzeko asmoz. 2011-2012 denboraldian Hibaika Arraun Elkarteko senior taldea, Club Atlético Rentería (CAR)-ko senior taldea eta Ereintza, eskubaloi elkarteko senior taldea diruz-lagundu ditu. Honez gain, prentsan euren presentzia handiagotzen ere saiatu da.

Emakumeen kirola sendotzeko horrelako ekimenak ezinbestekoak dira eta pixkanaka pixkana kirol munduan emakumeek gure tokia hartzen joan beharrean gaude. Nire aldetik, miresmen handiena eskaini nahi diet kirolari diren emakume guztiei. Nire erronkarik handiena momentuz, datoren urtean Lilatoian parte hartzea da.



Ereintza



Hibaika



CAR

